

JANGELAKO FUNTZIONAMENDU ETA ARAUAK

CATERING : AUZO LAGUN

* Jangela-zerbitzua irailaren 12an hasiko da eta ekainaren 21ean bukatuko da. Abenduaren 21an, martxoaren 1ean eta apirilaren 12an ez dago jangelako zerbitzua.

* Bi txandetan bazkaltzen dute: (estola handiko jangelan)

- **1go txanda:** Haur Hezkuntza (4 eta 5 urte) eta Lehen Hezkuntzako 1go eta 2. maila

- **2. txanda:** Lehen Hezkuntzako 3 – 4 – 5 eta 6garren mailakoak

* 2 eta 3 urteko ikasleek haur hezkuntzako eraikinean bazkalduko dute txanda bakar batean eta gero siesta egingo dute.

* Goizeko eta arratsaldeko eskola-orduen arteko saioan, eskolaume bazkalkideak jangelako zaindarien ardurapean daude, beraz, hauen baimenik gabe ezin izango dute eskolako instalazioetatik alde egin.

* **Arazo bat izatekotan Jangelako arduradunarekin harremanetan jarri behar zarete: JOSE FELIX MARTINEZ**

OSASUNA

- Zure seme-alabak alergiaren bat baldin badauka jangelako arduradunari jakinarazi behar diozu. Medikua agiria behar da.

DISZIPLINA

-**Ikaslearen jarrera egokia ez bada** jangelako langileek edo arduradunak gurasoei jakinaraziko* zaie. Jarrera desegokia errepikatuko balitz, beharreko disziplina-neurriak hartuko dira, honetarako, gure web orrian kontsulta ditzakezuen **Jangelaren Araudia** ezarriko da.

* Hiruhilabeteko ikaslearen txostenarekin batera, zuen seme-alabeen jarrera, konportamendu eta **jangelaren erabilpenari buruzko** beste **txosten bat** bidaliko zaizue.

ORDAINKETAK

- Jangelako zerbitzuaren ordainketa gurasoek adierazitako banketxearen kontuaren helbideratzearen bidez egingo da. **Ordainketa hilaren 5 eta 10 bitarte egingo da.**

-2018-2019 ikasturterako hauek dira finkatu diren kuotak:

Garraioaren eskubidearekin.....	63,07 € / Hilero
Ez garraiodunak	87,91 € / Hilero
2 Urteko gelakoek	78,71 € / Hilero
3 Urteko gelakoek	81,27 € / Hilero



9 kuota berdin ezarri dira urriatik Ekainara. Irailan ez da kobratzen.

Helbideratutako jangelaren kuota: kontuan saldoa ez izateagatik ordaindu ez duten ikasle guztiek berehala eskutitza jasoko dute eta zenbateko egokia ordainduta dagoela

adierazten duen ordainagiria ekartzen ez duten bitartean edo idazkaritzan ordaindu arte ezingo direla jangelan gelditu jakinaraziko zaie.

Helbideratu gabeko kontuarekin: kuota eskudirutan ordaintzen duten ikasle guztiek hilabete bakoitzeko 10a baino lehen egin beharko dute. Hala ez bada, arestian aipatutako gutuna jasoko dute eta jakinarazpen eta baldintzak berdinak azalduko zaizkie.

Kuota ez ordaintzeagatik 10 egun baino gehiago igarotzen badituzte jangelara joan gabe, plaza izateko eskubidea galduko du eta bere tokia beste ikasle batek beteko du.

Edozein egoerarengatik jankide finkoa faltatuz gero, ez du dirua itzultzeko eskubiderik izango.

BAJAK

Bazkalkideen behin betiko bajak jangelako arduradunari jakinaraziko zaizkio hilaren 30a baino lehen, bestela jarraituko balute bezala hartuko dira. Ikasle hauek ezin izango dute berriro alta hartu jangelan

BESTE BATZUK

- Egun askatuak gelditzeko, gutxienez bezperan eskatu egin behar dira, lekurik balego, eta une horretan **5,5 euroko kuota** ordaindu beharko dute. Jangela txikian , 2 eta 3 urteko ikasleek ezin dute behin behineko izan

2 ETA 3 URTEKO JANGELAKO ZERBITZUA

-Hiru urteko ikasleak , eskolako egoitzapena egin eta gero, jangelan hasiko dira urriaren 2ean eta 2 urtekoak urriaren 9an hasiko dira. Ikasle hauek egunero siesta egingo dute. 2 urteko ikasleen gurasoek aukera izango dute joateko etxera siesta bota baino lehen baina gelditzen badira siesta botatzen derrigorrez geldituko dira eskolan 16:15ak arte.

JANGELAKO ARDURADUNAK

Jangela kudeaketarako arduraduna: **JULIO DE ALBA**
Jangelako antolakuntza arduraduna: **JOSE FELIX MARTINEZ**

